



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2019.02.19AN EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABAETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
IRAIZ LAZKANO GARITAONANDIA

ANTZUOLA
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA

ETORRI GABEAK

JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
MARIA UBARRETXENA CID
IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
JUAN BENGOA PAGALDAY
MIKEL BIAIN BERRAONDO
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARETXABAETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2019ko otsailaren 19an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez onartu du 2019ko urtarrilaren 22an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Hainbat prezio publikoren aldatzea

Kontu-hartzailearen txostena ikusirik, eta bere proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Hondakin bilketako poltsa konpostagarrien salmentan kaxa garraioaren prezio publikoak aldatzea, honela finkatuz:
 - Lehen kaxa eramatearen prezioa..... 5,00 €.
 - Kaxa gehigarriaren prezioa..... 1,25 €.

2.2.- 2019ko Aurrekontuan kredituak aldatzeko espedientea; udal ekarpen berriak inbertsioetarako; kreditu gaikuntza bidezko kreditu aldaketaren 2019-KALD-00001-00 zenbakidun espedientea onartzea

Kontu-hartzaileak Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman du, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena eta ziurtagiria aztertu dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, Mankomunitateko Gobernu Juntak, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea onartzea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin:

GASTUAK

Gastuen partida	Izena	Euroak
1.3004.623.162.10.22.2019	Inbertsioak edukiontzietan	99.825,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		99.825,00



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

SARRERAK

Sarrerren partida	Izena	Euroak
2.3000.722.162.10.01.2019	Udal kapital Ekarpenak Bilketa	99.825,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		99.825,00

2.3.- 2019ko ordainsarien igoera

2018/12/27an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean Estatuaren 2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-Dekretua; horren bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan.

Aipatu Errege Lege-Dekretuaren 3. bi artikulua honela dio:

“2019. urtean, sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariak oro har ezingo dira igo 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko ehuneko 2,25 baino gehiago, alderatutako bi epealdietarako homogeneotasunari lotuta, bai langileei eurei dagokienez, eta bai langileriaren antzintasunari dagokionez ere; horretarako, ez dira kontuan hartuko gizarte-ekintzarako gastuak, zeinak, orokorrean, 2019an ezingo baitira izan 2018ko gastuak baino handiagoak. Horren inguruan, gizarte-ekintza arloko gastuak irabaziak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, egindako lanagatik jasotako lansariekiko desberdinak, orobat; lansariaren helburua aipatutako sektore publikoaren zerbitzurako langileriaren inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako premia jakina batzuk asetzea da.

Aurreko guztiaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2018ko prezio iraunkorretan ehuneko 2,5ekoa edo handiagoa izango balitz, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste ehuneko 0,25eko soldata igoera erantsiko litzaioke. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundera izanik, igoera hein berean apalagoa izango da, esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera. Era horretan, igoera orokorren emaitzak honako hauek izango dira:

BPGd 2,1aren berdina: %2,30.

BPGd 2,2aren berdina: %2,35.

BPGd 2,3aren berdina: %2,40.

BPGd 2,4aren berdina: %2,45.

.....”

Artikulu honen arabera, eta Pertsonal Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

1. Aipatutako artikulua lehen paragrafoari dagokionez, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, Mankomunitateko langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %2,25, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.
2. Bestetik, aipatu artikulua bigarren paragrafoari dagokionez, %0,25 arteko soldata-igoera gehigarria ere onartzea, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, baldin eta BGPren bilakaera parametroak betetzen baldin badira.
3. Portzentaje berean igotzea dedikaziodun Juntakideen soldatak.

2.4.- 2019ko Enplegu Publikorako Eskaintza

Mankomunitateko estatutuen 16. artikuluan jasotako Enplegu Publikorako eskaintza onartzeko lehendakariaren eskumenaren kalterik gabe, langileen ordezkariekin adostutako 2019ko Enplegu Publikorako Eskaintzaren berri eman zaio Gobernu Juntari. Eskaintza honetan, estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren Legean jasotako aldi baterako enplegua egonkortzeko tasaren markoan, 2 informatzaile-teknikari plaza sartzen dira, eta barne promozioz bete beharreko gidari-langileburu plaza bat. Gobernu Juntak bere adostasuna adierazi du aho batez.

2.5.- Informatzaile-teknikari bi plaza eta gidari-langileburu plaza bat betetzeko oinarriak

Mankomunitateko estatutuen 16. artikuluan jasotako langileak aukeratzeko eta lanpostuak betetzeko oinarriak onartzeko lehendakariaren eskumenaren kalterik gabe, langileen ordezkariekin adostutako informatzaile-teknikari bi plaza eta gidari-langileburu plaza bat betetzeko oinarrien berri eman zaio Gobernu Juntari. Oinarri hauetan IVAPek egindako proposamenak ere kontuan hartu dira. Gobernu Juntak bere adostasuna adierazi du aho batez.

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Etxeko handakinak biltzeko Ordenantzaren aldaketa

Bideratu den espedientea ikusita eta Ingurumen Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ondorengo ERABAKI DU:

1.- Hasierako onespina ematea Etxeko Hondakinak Biltzeko Ordenantzaren ondorengo aldaketei:

1. 83. ARTIKULUAN, ZIGORRAK

Orain, esaten duenean:

“1. Aurreko artikuluan jasotako arau-hausteren bat eginez gero, zigorrak ezarri ahal izango dira:



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

A. Arau-hauste oso larriak egiteagatik:

10.000,01 € eta 45.000 € arteko isunak.

B. Arau-hauste larriak egiteagatik:

2.000,01 € eta 10.000 € arteko isunak.

C. Arau-hauste arinak egiteagatik:

60 € eta 2.000 € arteko isunak.

2. Zigorak ezartzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: arau-haustea egin duen pertsonaren zirkunstantziak, erru maila, araua behin eta berriz hautsi izana; parte hartze maila eta lortutako onura, eta ingurumenari eragindako kaltearen neurria edota pertsonen osasuna kaltetzeko eragindako arriskua.

3. Zigorra ezartzeaz gain, Mankomunitateak eskubidea izango du kalte-galerengatik dagokion ordaina eskatzeko.”

Aldaketa honekin esango du:

“1. Aurreko artikuluan jasotako arau-hausteren bat eginez gero, zigor hauek ezarri ahal izango dira:

A. Arau-hauste oso larriak egiteagatik:

10.000,01 € eta 45.000 € arteko isunak.

B. Arau-hauste larriak egiteagatik:

2.000,01 € eta 10.000 € arteko isunak.

C. Arau-hauste arinak egiteagatik:

60 € eta 2.000 € arteko isunak, ondorengo xehakapenaren arabera:

- 1. arau-haustea: 60 € eta 600 € arteko isunak.
- 2. arau-haustea: 601 € eta 2.000 € arteko isunak.

2. Zigorak ezartzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: arau-haustea egin duen pertsonaren zirkunstantziak, erru maila, araua behin eta berriz hautsi izana; parte hartze maila eta lortutako onura, eta ingurumenari eragindako kaltearen neurria edota pertsonen osasuna kaltetzeko eragindako arriskua.

3. Zigorra ezartzeaz gain, Mankomunitateak eskubidea izango du kalte-galerengatik dagokion ordaina eskatzeko.

4.- Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkidearen, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 85 artikuluan jasotakoaren arabera, zehapen-prozedura bat hasitakoan, arau-hausleak bere erantzukizuna aitortzen badu, dagokion zehapena ezarriz ebatzi ahal izango da prozedura.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Zehapena diruzkoa soilik baldin bada, ustezko erantzuleak ebazpena baino lehenagoko edozein unetan borondatez ordaintzeak amaitu egingo du prozedura, salbu eta aldatutako egoera lehengoratzeari dagokiona edo arau-hausteagatik sortutako kalte eta galeren ordaina erabakitzeari dagokiona.

Bi kasuetan, zehapena diruzkoa soilik denean, prozedura ebazteko eskumena duen organoak %25eko murriztapenak aplikatuko ditu proposatutako zehapenaren gainean, eta murriztapenak elkarrekin bateratu daitezke. Hauetaz baliatzeko, zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekursoetan atzera edo uko egin beharra dago.”

2. II ERANSKINA. GARBIGUNEETAKO HONDAKINEN ZERRENDA ETA MUGAK

Orain, esaten duenean:

“..... Honelako hondakinak onartuko dira:

.....

- Geldoak: Etxeetako lan txikien hondakinak, lurrak, errautsak, kristalak, etabar.”

Aldaketa honekin esango du:

“..... Honelako hondakinak onartuko dira:

.....

- Geldoak: Etxeetako lan txikien hondakinak, lurrak, errautsak, kristalak, etabar. Hondakin hauek onartu ahal izateko, udalak emandako obra baimena edo baliokidea den beste agiriren bat erakutsi beharko da. Baimenik gabe, erabiltzaile bakoitzak gehienez hondakin hauen 100 litro eraman ahal izango du garbigunera hilabete bakoitzeko. Dena dela, hilabeteren batean 100 litroko muga honetara iritsiz gero, hurrengo 4 hilabeteetan ezingo du honelako hondakinik eraman.”

2.- Erabaki hau eta honetaz bideratu den espedientea informazio publikorako ikusgai jartzea 30 lanegunez, iragarkia Mankomunitateko iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko delarik, interesatuek bidezko iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Informazio publikoko denboraldi horretan ez bada inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, hasierako onespina duen erabaki hau behin betiko onartutzat joko da.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa

- L.H.B.: eskaera berria

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren zerbitzu modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Jarduera honako hau izango da: moda diseinua. Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

- L.H.B. andreari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (6-ZM) zerbitzu modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

- M.C.A.; luzapen bat

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2020ko otsailaren 5era arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 4-IM industri modulua erabiltzeko baimena, M.C.A. andreari emana, Gobernu Juntaren 2018ko urtarrilaren 23ko erabaki bitartez.

- X.U.I.; luzapen bat

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2020ko otsailaren 21era arte, luzatzea Aretxabaletako Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 5-AR zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, X.U.I. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2018ko urtarrilaren 23ko erabaki bitartez.

- Luzapen bat: J.J.I.Y.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2020ko urtarrilaren 31 arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 3-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, J.J.I.Y. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2017ko urtarrilaren 17ko erabaki bitartez.

- Z.A.J.; fidantza bueltatzea

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espediente ikusita.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengo ERABAKI DU:

- Z.A.J. ekintzaileari bere egunean jarritako 183,09 €-ko fidantza bueltatzea.

4.2.- GARAPEN BATERA proiektua kudeatzeko DEBEGESArekin lankidetzaz hitzarmena

DEBEGESAk eta Debagoieneko Mankomunitateak “Gipuzkoa pertsona eta enpresa parte-hartzaileak sustatzeko” programaren barruan, enpresa txiki eta ertainetan prospektiba sistematikoaren bitartez lehiakortasuna hobetzeko “GARAPEN BATERA” proiektua garatzen ari dira. Lanak Gipuzkoako Foru Aldundiko diru-laguntzarekin burutzen ari dira eta horien idazkaritza tekniko eta hornitzaileekin bitartekaritza lanak Debegesak hartu ditu bere gain. Ondorioz, sortzen diren gastuak Garapen Agentzia bien artean partekatu behar dira. Beraz, Debagoieneko Mankomunitateak 2.741,99 € ordainduko dizkio Debegesari.

Hau gauzatzeko, Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- DEBEGESA-rekin beste lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea proposatutako testuaren arabera.

4.3.- HAZILAN proiektuaren “Aktibatu” fasean formazioa emateko kontratazio espedientea

HAZILAN POPV FSE 2014-2020 proiektuaren “Aktibatu” fasean enplegua bilatzeko kompetentzia pertsonalak eta sozio-laboralak lantzeko formazio ekintzak garatu eta emateko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

19/04.- LEHENENGO.- ANTICIMEX 3D SANIDAD AMBIENTAL, S.A.U. enpresari esleitzea, “Foru Kontratazioen Zentralaren bidez arratoiak eta intsektuak hiltzeko zerbitzua kontratatzeko esparru akordiotik” eratorritako kontratua urteko 2.482,83 €-ko prezioan, gehi BEZa, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- Kontratu honi dagokion gastua onartzea, ondorengo kontusailen kargura: 3600.226.162.36.99 eta 3004.226.162.10.99.

19/05.- 1.- Aretxabaletako Errekabarren, 8, 3 kalean bizi den JON ETXEBERRIA OYON jaunaren aurka zigor-espedientea irekitzea, 2019ko urtarrilaren 9an ustez egindako hutsegite arinengatik, honako egitate hauetan oinarrituta:

“2019ko urtarrilaren 9an, kalitate zerbitzuko langileak 510. organikoaren edukiontzia prezintatu behar izan zuen barruan zuen inpropio maila altuegia zelako konpostatze-plantara eramateko. Ondorioz, edukiontzia errefusarekin jaso behar izan zen, organikoa behar den bezala sailkatuta bota zuten erabiltzaileen ahalegina alferrik galduz. Edukiontzian agertutako inpropiodun poltsa baten barruan zeuden hondakinetatik ondorioztatzen da poltsa horren jabea Jon Etxeberria Oyon zela. Aipatzekoa da edukiontzian agertutako inpropio batzuk ez zirela etxeko hondakinak eta horietako batzuk hondakin arriskutsuak zirela. Izan ere autoen konponketan erabilitako auto-olio poteak, aerosolak eta auto konponketan erabilitako bestelako materialak agertu ziren.”

Arau-hauste hauek Debagoieneko Etxeko Hondakinen Bilketa arautzen duen Ordenantzaren 82.3 artikuluan a) atalean daude ezarrita, **arau-hauste arintzat jota**; honela, hain zuzen: **a) “Hondakinak Mankomunitateak zehaztutako moduak errespetatu gabe, hondakinak uzteko lekuetatik kanpo, edo zerbitzuaren egutegitik edo ezarritako ordutegitik kanpo uztea.”**

Aipaturiko Ordenantzan 83.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, arau-hauste arinak egiteagatik **60 eta 2000 € arteko isunak** jar daitezke. Artikulu bereko 2. atalean esaten da: *“Zigorak ezartzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: Arau-haustea egin duen pertsonaren zirkunstantziak, erru maila, araua behin eta berriz hautsi izana; parte hartze maila eta lortutako onura, eta ingurumenari eragindako kaltearen neurria edota pertsonen osasuna kaltetzeko eragindako arriskua”,* eta 3. atalean gaineratzen du *“Zigorra ezartzeaz gain, Mankomunitateak eskubidea izango du kalte-galerengatik dagokion ordaina eskatzeko”.*

2.- Espediente honen instrukziogile Belén Txintxurreta Iparragirre —Mankomunitateko behin behineko idazkaria— izango da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 23. eta 24. artikuluetan ezarritako termino eta kasuetan ezetsi edo errekusatu ahal izango direlarik.

3.- J.E.O. jaunari ebazpen honen berri ematea, 15 eguneko epea emanaz komenigarri iruditzen zaizkion alegazioak, agiriak edo argibideak aurkez ditzan, eta frogaldi bat irekitzeko eska dezan, bertan egokiak iruditzen zaizkion frogabideak proposatzeko.

19/06.- - Aretxabaletako Durana kaleko 2an dagoen D.K. aurka zigor-espedientea irekitzea, 2019ko urtarrilaren 10ean ustez egindako hutsegite arinengatik, Udaltzaingoa txostenean jasotako honako egitate hauetan oinarrituta:



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

“Lausita 2. ondoan dauden kontenedoreetan kaxa pila bat zeuden ez ohizko lekuan, espaloian zeuden, barrukoa beteta zegoelarik. Danona kafetegiarena kaxa gehienak ziren.”

19/07.- 18/39 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA HOGEITA BOST MILA ZAZPIEHUN ETA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (125.719,93 €).

19/08.- EROSKI SUPERMERKATUAren aurka irekitako zigor-espedientea artxibatzea frogarik ez dagoelako.

19/09.- 18/40 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA HIRUROGEITA BAT MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA HIRUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (161.565,79 €).

19/10.- 19/01 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERROGEITA BAT MILA ZAZPIEHUN ETA ZORTZI EURO ETA HOGEITA HAMABI ZENTIMO (51.708,32 €).

19/11.- Bergarako San Juan auzoan, 40an, dagoen B.S.COOP.. Enpresaren aurka zigor-espedientea irekitzea, 2019ko urtarrilaren 23an ustez egindako hutsegite arinengatik, Ingurumen Zerbitzuaren txostenean jasotako honako egitate hauetan oinarrituta:

“2019/01/23an, Bergarako kalitate zerbitzuko langileak San Juan auzoko ekarpen gunean egurrezko paletak deskargatzen ari den furgoneta baten argazkiak bidali dizkio Mankomunitateari. Bergarako Udaltzaingoak adierazi du furgoneta horren jabetza Bergarako San Juan Industrialdean kokaturiko Berazmek enpresarena dela. Egurrezko paletak, industria jatorriko hondakinak izanik, enpresak berak kudeatu behar ditu baimendutako kudeatzaile bidez; mankomunitateak exteko hondakinak edo parekoak direnak soilik jasotzen baititu.”

19/12.- 1.- Bergarako Fraiskozuri kaleko 5ean dagoen L.K. aurka zigor-espedientea irekitzea, 2019ko urtarrilaren 25ean eta 26an ustez egindako hutsegite arinengatik, Ingurumen Zerbitzuaren txostenean jasotako honako egitate hauetan oinarrituta:

“2019/01/25 eta 2019/01/26an Bergarako aurre bilketa zerbitzuko langileak 233. edukiontzi gunearen ondoan lurreen zeuden zabor poltsa beltzen argazkiak bidali dizkio Mankomunitateari. Poltsa barruan dagoen hondakinetatik ondorioztatzen da zabor nahasiz betetako poltsen jatorria Laboral Kutxakoa dela. Aipatzekoa da intzidentzia hori gertatu aurretik beste bi alditan ere bidali izan direla jakinarazpenak establezimendura, bata zuzenean beraiei 2018ko urriaren 15ean, eta bigarren bat inguruko komertzio guztiei 2018ko azaroan. Horietan guztietan, jakinarazi zaie hondakinak sailkatu gabe eta bakoitza dagokion edukiontzi barrura ez botatzeak Ordenantzan arau haustea suposatzen duela, eta horrek isuna ekar dezakeela.”

19/13.- 1.- Bergarako B.I. aurka zigor-espedientea irekitzea, 2019ko urtarrilaren 25ean eta 26an eta otsailaren 3an ustez egindako hutsegite arinengatik, Ingurumen Zerbitzuaren txostenean jasotako honako egitate hauetan oinarrituta:



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

“2019/01/25, 2019/01/26 eta 2019/02/03an Bergarako aurre bilketa zerbitzuko langileak 235. edukiontzi gunearen ondoan lurlean zeuden zabor poltsa beltzen argazkiak bidali dizkio Mankomunitateari. Poltsa barruan dagoen hondakinetatik ondorioztatzen da zabor nahasiz betetako poltsen jatorria Irintzi taberna dela. Aipatzekoa da intzidentzia horiek gertatu aurretik beste bi alditan ere bidali izan direla jakinarazpenak Irintzi tabernara, bata zuzenean beraiei 2018ko uztaillaren 27an, eta bigarren bat inguruko taberna guztiei 2018ko azaroan. Horietan guztietan, jakinarazi zaie hondakinak sailkatu gabe eta bakoitza dagokion edukiontzi barrura ez botatzeak Ordenantzan arau haustea suposatzen duela, eta horrek isuna ekar dezakeela.”

19/14.- 1.- Bergarako B.T. aurka zigor-espeditentea irekitzea, 2019ko urtarrilaren 23an eta otsailaren 1ean ustez egindako hutsegite arinengatik, Ingurumen Zerbitzuaren txostenean jasotako honako egitate hauetan oinarrituta:

“2019/01/23 eta 2019/02/01ean Bergarako aurre bilketa zerbitzuko langileak 235. edukiontzi gunearen ondoan lurlean zeuden zabor poltsa beltzen argazkiak bidali dizkio Mankomunitateari. Poltsa barruan dagoen hondakinetatik ondorioztatzen da zabor nahasiz betetako poltsa baten jatorria Bule taberna dela. Aipatzekoa da intzidentzia horiek gertatu aurretik beste bi alditan ere bidali izan direla jakinarazpenak Irintzi tabernara, bata zuzenean beraiei 2018ko azaroaren 12an, eta bigarren bat inguruko taberna guztiei 2018ko azaroan bertan. Horietan guztietan, jakinarazi zaie hondakinak sailkatu gabe eta bakoitza dagokion edukiontzi barrura ez botatzeak Ordenantzan arau haustea suposatzen duela, eta horrek isuna ekar dezakeela.”

19/15.- 1.- Bergarako E.G. aurka zigor-espeditentea irekitzea, 2019ko urtarrilaren 28an ustez egindako hutsegite arinengatik, Ingurumen Zerbitzuaren txostenean jasotako honako egitate hauetan oinarrituta:

“2019/01/28an Bergarako aurre bilketa zerbitzuko langileak 229. edukiontzi gunearen ondoan lurlean zeuden zabor poltsen argazkiak bidali dizkio Mankomunitateari. Poltsa barruan dagoen hondakinetatik ondorioztatzen da zabor nahasiz betetako poltsen jatorria Eruan gastroteka dela. Aipatzekoa da intzidentzia horiek gertatu aurretik beste bi alditan ere bidali izan direla jakinarazpenak Eruan gastrotekara, bata zuzenean beraiei 2018ko irailaren 7an, eta bigarren bat inguruko taberna eta komertzio guztiei 2018ko abenduan. Horietan guztietan, jakinarazi zaie hondakinak sailkatu gabe eta bakoitza dagokion edukiontzi barrura ez botatzeak Ordenantzan arau haustea suposatzen duela, eta horrek isuna ekar dezakeela.”

6.- GALDE-ERREGUAK

- Landerrek Epeleko zabortegia erabiltzeko FAGOR EDERLAN kooperatibak egindako eskaeraren berri eman du. Gai hau aztertzekotan gelditu da.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 14:00etan, bukatutzat eman da bilkura.